

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 8/2018 Foru Dekretua, otsailaren 20koa. Onestea gizarte bazterketaren egoera onartzeko araudia Arabako Lurralde Historikoan

Abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, zioen azalpenean xedatzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak sare bat osatzen duela, zeinak, besteak beste, eginkizun hauek dituen: titulartasun publiko eta pribatuko zerbitzuak eta ekipoak eskaintzeko ardura, pertsona, familia eta talde guztien gizareratzea eta autonomia errazteko; horretarako, zeregin sustatzaileak, prebentziozkoak, babesleak eta laguntzazkoak garatuko ditu, nagusiki pertsona eta harreman izaera izango duten zerbitzuak eskainiz.

Definizio horrekin bat etorritik, lege beraren 7. artikulua xedatzen ditu Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arautuko duten printzipio orokorrak; eta lehen paragrafoan adierazten du botere publikoen erantzukizuna dela eta botere horiek bermatu beharko dutela Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan araututako prestazio eta zerbitzuak eskueran eta erabilgarri izatea.

27. artikuluan, berriz, adierazten da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osatzen duten zerbitzu guztiek era koordinatuan jardun behar dutela, eraginkortasuna bermatzeko eta sistema kohesionatzeko. Bigarren paragrafoak, halaber, xedatzen du zerbitzu horiek lehen eta bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuek eskainiko dituztela. Lehen arretako zerbitzuek, 22.1 artikuluan zerrendatutakoek, besteak beste, hauen ardura izango dute: gizarte bazterketarekin zerkusua duten beharrak, batez ere, gizartetik at geratzeko arrisku egoerei hartuko die aurre, eta horretarako zerbitzu horiek bermatuko ditu udal gizarte zerbitzuen bidez. Bigarren arretako gizarte zerbitzuek, 22.2 artikuluan zerrendatutakoek, hauen ardura izango dute besteak beste: bazterketa egoeren ondoriozko beharrak; zerbitzu horiek foru gizarte zerbitzuek eskainiko dituzte; izan ere, 41. artikulua foru organoei aitortzen die horretarako eskumena, hau da, gizarte zerbitzuen arloan zerbitzuak antolatzeke araupetze ahalmena.

Azkenik, adierazi uztailearen 16ko 385/2013 Dekretuaren bidez onartu zela Gizarte Bazterketaren Balorazio Tresna, zeinak, 12/2008 Legearen 20. artikuluan xedatutakoaren arabera, helburu duen gizarte zerbitzuen esku hartze irizpideen homogeneotasuna bermatzea, balorazio eta diagnosi tresna tekniko komunak aplikatzean.

Horregatik guztiagatik, Arabako Foru Aldundiak egoki jotzen du, bere lurralde eta eskumenen barruan, gizarte bazterketaren egoeren balorazioa arautzea, zeren eta 385/2013 Dekretuak eta 185/2015 Dekretuaren 19. artikulua foru zerbitzuei aitortzen baitiete bazterketaren balorazio espezializatua egiteko eskumena. Araupetze hori, halaber, bat dator Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak ezartzen dituen arautze egokiaren printzipioekin (foru dekretu horren bidez onarpena eman zitzaizen xedapen orokorrak egiteko prozedurari, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidei eta araugintza teknikari buruzko jarraibideei).

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatuak proposatuta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseilua jakinaren gainean jarrita eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako lurralde historikoan gizarte bazterketaren egoera onartzeko araudia, l. eranskinean jasotakoa.

Bigarrena: Onestea onarpen prozedurari dagozkion inprimakiak.

AZKEN XEDAPENA. Indarrean sartzea

Foru dekretu hau eta haren eranskinak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 20a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua

M. ANTONIA OLABARRIETA IBARRONDO

I. ERANSKINA

Gizarte bazterketa onartzea Arabako Lurralde Historikoan

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Foru dekretu honen xedea da arautzea nola baloratuko den gizarte bazterketa Arabako Lurralde Historikoan.

2. artikulua. Gizarte bazterketan dauden pertsonak eta bazterketa horren mailak

Urriaren 16ko 385/2013 Dekretuak gizarte bazterketa baloratzeko onartu duen tresna erabiliko da pertsonak gizarte bazterketan daudenez zehazteko. Tresna horretaz egiten den balorazioaren arabera diagnostiko kategoria hauek ezar daitezke: gizarte inklusioa, gizarte bazterketaren arriskua eta gizarte bazterketa.

Pertsona bat honako kasu honetan dago gizarte bazterketan: bizimoduan eta elkarbizitzan hainbat gabezia baditu luzaroan eta horiek pilatzearen ondorioz gizartean baztertuta gertatzen bada; egoera hau zuzenean lotuta dago baliabide pertsonalekin, harreman baliabideekin eta baliabide materialekin.

Gizarte bazterketaren intentsitatea honako gradu hauekin neurtzen da:

– Arina: deserrotzea, hastapeneko edo arina (pertsonak ahaideekin eta laguntza sareekin dituen harremanak hauskorak dira).

– Ertaina: deserrotzea aurreratuta (pertsonaren oinarrizko gizarte loturak hautsi dira).

– Larria: pertsonak ez du parte hartzen gizartean (gizarte harremanak eta harreman afektiboak urriak dira edo ez dauka bat ere ez).

3. artikulua. Gizarte bazterketaren baloraziorako eskubidea edukitzeko bete beharrekoak

1. Pertsona batek gizarte bazterketaren baloraziorako eskubidea edukitzeko inguruabar hauek gertatu behar dira:

a) Eskaera aurkezten denean 18 urte beteta eduki behar ditu.

b) Hasierako balorazioa eginda eduki behar du lehen edo bigarren mailako arretako gizarte zerbitzu egokiak eta zerbitzu horrek uste izan behar du balorazio edota diagnostiko espezializatua behar dela.

c) Errolda eta bizilekua direla eta, bi kasu daude:

c.1. Balorazioa eskatzen denean pertsona Arabako Lurralde Historikoko udalerrri batean erroldatuta badago, bertan bizi bada eta bertan badauka bere legezko bizilekua:

– Ezinbestekoa izango da eskaera aurkezten denean Arabako Lurralde Historikoko udalerrri batean erroldatuta egotea eta bertan edukitzea legezko bizilekua.

– Ez da beharrezkoa izango aurretik aldi batez Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egotea.

c.2. Balorazioa eskatzen denean pertsona Arabako Lurralde Historikoko udalerrri batean erroldatuta egon eta bertan bizi arren, legezko bizilekua bertan ez badauka:

– Ezinbestekoa izango da Arabako Lurralde Historikoko udalerrri batean bizitzea eta bertan erroldatuta egotea.

– Beharrezkoa izango da eskaera aurkeztu aurretik 12 hilabetez Arabako Lurralde Historikoko udalerrri batean bizitzea eta erroldatuta egotea.

d) Bazterketa zantzuak eduki behar ditu.

2. Kasu berezietan, Aholku Batzorde Teknikoak aldeko txostena egin ondoren, artikuluko honetan ezartzen diren betekizun guztiak betetzen ez dituzten pertsonen gizarte bazterketaren baloraziorako eskubidea eduki dezakete.

II. KAPITULUA. GIZARTE BAZTERKETA ONARTZEKO PROZEDURA

1. atala. Prozeduraren hasiera.

4. artikulua. Eskaerak aurkeztea

1. Eskaerak berariaz prestatutako eredu normalizatuan aurkeztu behar dira, foru dekretu honen II. eranskinean xedatzen denarekin bat etorritik; formularioa: 005.

2. Gizarte bazterketa onartzeko prozedura pertsona interesdunak (edo beraren legezko edo borondatezko ordezkariak) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Kudeaketako Zuzendaritzari eskaera aurkeztu ondoren hasiko da.

3. Eskaera eskatzailea bizi den udalerriko lehen mailako arretako gizarte zerbitzura bidali behar da edo, bestela, bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuetara jo behar da. Balorazio edota diagnostiko eskaera kasu honetan bakarrik aurkez daiteke bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuetan: balorazioa edota diagnostikoa eskatzen duen pertsonari arreta ematen badio bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuren batek.

4. Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16. artikuluan ezartzen duen bezala ere aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

5. Prozedura hasteko ezinbestekoa izango da lehen mailako arretako gizarte zerbitzuek edo bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuek uste izatea beharrezkoa dela Bazterketa Baloratzeko eta Diagnostikatzeko Zerbitzuak balorazioa edota diagnostikoa egitea.

Horretarako, erreferentziako profesionalak Bazterketa Baloratzeko eta Diagnostikatzeko Zerbitzuari bidaliko dio balorazio eskaera, pertsona interesdunak sinatuta.

5. artikulua. Dokumentazioa

1. Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Nortasuna egiaztatzeko agiriak:

– Ezinbestean, bazterketaren balorazioa eskatzen duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) fotokopia edo, horrelakorik eduki ezean, indarrean dagoen legeriaren arabera nortasuna egiaztatzen duen beste edozein dokumentu ofizialen fotokopia, eskaera interesdunak zuzenean aurkezten duenean zein legezko edo borondatezko ordezkariaren bidez aurkezten duenean.

– Behar denean, ordezkari aritzen den pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) fotokopia eta ordezkariaren egiaztagiria:

Eskaera legezko ordezkariaren bitartez aurkezten bada, dokumentazioarekin batera ordezkariaren datuen berri emateko formularioa (II. eranskina; formularioa: 008) aurkeztu behar da, behar bezala beteta.

Eskaera borondatezko ordezkariaren bitartez aurkezten bada, dokumentazioarekin batera ordezkariaren datuen berri emateko formularioa (II. eranskina; eredia: 2) aurkeztu behar da, behar bezala beteta.

Eskaera ez bada aurkezten ordezkariaren bidez, eskatzaileak erreferentziako pertsona bat izendatu ahal izango du jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzeko, ez beste ezertarako. Horretarako II. eranskineko 008 formularioa bete behar da.

b) Atzerritarrek agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

– Atzerritarra Europar Batasuneko estatu batekoa bada, Europar Batasuneko Herritarren Erregistro Ziurtagiria.

– Atzerritarra Europar Batasuneko estatu batekoa ez bada, bizileku baimena.

c) Errolda eta bizileku betekizunak betetzen direla egiaztatzeko agiriak. Eskatzailearen errolda ziurtagiri eguneratua (edo ziurtagiriak), adierazten duena bizi den udalerrian noiz eman zitzaion alta, batetik, eta bestetik, behar den kasuetan, eskaera aurkeztu aurreko 12 hiletan Arabako Lurralde Historikoan alta eta bajaran egon den aldiak zehazten dituenak.

Errolda betekizuna betetzen dela frogatzeko pertsona interesduna eskaera aurkeztean erroldatu dagoela adierazten duen ziurtagiria aurkeztu beharko da; gainera, beharrezkoa izanez gero, ezarritako aldiaren zehar Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egon delako ziurtagiria ere aurkeztu beharko da. Eskatzailea Gasteizen, Laudion edo Amurrion bizi izan bada, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak zuzenean erabiliko du udal errolda, interesdunak baimena emanaz gero.

Bizileku betekizuna betetzen dela frogatzeko balorazioa eskatzen duen pertsonaren agiri hauek aurkez daitezke, zuzenbidean onartzen diren beste frogabide batzuk beste direla: osasun txartelaren kopia; mediku hitzorduaren kopia; eskolatzeko ziurtagiria; lan kontratua edo prestakuntza jarduerak egiten ari direlako ziurtagiria; zergak edo tasak ordaindu direlako frogagiriak; etxebizitzaren alokairuaren kontratua; bizileku baimenaren izapideak egiten ari direla frogatzen duen agiria; gizarte zerbitzu baten txostena, interesduna berarekin sarritan harremanetan dagoela adierazten duena; eta abar.

Eskatzailea espetze batean badago, frogatu behar du bertan sartu aurretik eduki duela bizilekua Arabako Lurralde Historikoan.

d) Sarreraren aitortpena; eredia foru dekretu honen II. eranskinean dago (formularioa: 005).

e) Osasun txostena; eredia foru dekretu honen II. eranskinean dago (formularioa: 006 eta 034).

f) Adostasunaren formularioa, behar izanez gero; eredia foru dekretu honen II. eranskinean dago (formularioa: 010).

2. Gainera, artikuluko honetako 1. paragrafoan aipatzen diren eskaerarekin eta agiriekin batera Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearentzako baimena aurkeztu behar da, hain zuen ere espedientea izapidetzeko behar diren datu pertsonalak biltzeko, erabiltzeko edota transmititzeko baimena, behar bezala sinatuta (eredua foru dekretu honen II. eranskinean dago; formularioa: 012). Baimen horren bidez Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bere kabuz eskuratu ahal izango ditu espedientea bideratzeko behar dituen beste administrazio publikoen datuak eta informazioak. Baimen hori eman ezean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskatzaileari eskatu ahal izango dio berak aurkezteko datu horiek.

3. Eskaeran edo berarekin batera aurkeztutako agiriren batean datu faltsurik ematea edo eman beharreko daturen bat faltatzea nahikoa izango da gizarte bazterketa ez onartzeko.

2. atala.

6. artikulua. Eskaera egiaztatzea eta zuzentzea

Eskaera jaso ondoren eskatzaileari dagokion lehen edo bigarren mailako arretako gizarte zerbitzua (kasuan kasukoa) espedientea izapidetzen hasiko da, eta eskaera behar bezala beteta dagoenez egiaztatuko du.

Eskaera ondo beteta aurkezten ez bada edo aurreko artikuluko 1. idatz zatian azaltzen diren agirietako bat falta bada, eskatzaileari errekerimendua egingo zaio, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 68. artikuluan ezartzen duen bezala, hamar (10) egun balioduneko aldian akatsak zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio ezen, hori egin ezean, eskaeran atzera egin duela ondorioztatuko dela berariazko ebazpen baten bidez.

7. artikulua. Nahitaezko txostenen eta agiri gehigarrien errekerimendua

1) Eskaera lehen mailako arretako gizarte zerbitzu bati aurkeztuz gero, zerbitzuak eskura dauzkan txostenak eta aurrekariak (medikuak, psikologikoak eta sozialak) bidali beharko dizkio bazterketa baloratzeko eta diagnostikatzeko foru zerbitzu espezializatuari, eta horiekin batera Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte fitxa, hasierako gizarte diagnostikoa eta horrek berekin dakarren txostena edota sakoneko gizarte diagnostikoa ere bai (azken diagnostiko hori maiatzaren 28ko 353/2013 Dekretuak arautzen du). Erabilitako adierazkarien balioak azaldu beharko ditu.

2) Eskaera bigarren mailako arretako gizarte zerbitzu bati aurkeztuz gero, zerbitzuak eskura dauzkan txostenak eta aurrekariak (medikuak, psikologikoak eta sozialak) bidali beharko dizkio bazterketa baloratzeko eta diagnostikatzeko foru zerbitzu espezializatuari, bai eta balorazio zerbitzuak ezartzen dituen datuak biltzen dituen gizarte txostena ere.

8. artikulua. Bazterketa baloratzeko hitzorduaren berri ematea

Eskaera egiaztatu eta, behar denean, zuzendu ondoren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bazterketaren balorazioa zer egunetan, zer ordutan eta non egingo den jakinaraziko du, ahal dela idatziz, maiatzaren 28ko 353/2013 Dekretuak, gizarte bazterketa baloratzeko tresna onartzen duenak, ezartzen duenarekin bat etorriz.

Jakinarazpen horretan GOFek berariaz adieraziko du eskatzailea ezarritako hitzordura joaten ez bada, eskaeran atzera egin duela pentsatuko dela eta hura beste izapidetik gabe artxibatuko dela, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak berariazko ebazpena eman ondoren, kasu honetan izan ezik: ezarritako eguna baino lehen agiri baten bidez frogatzen badu egun horretan ezin dela azaldu baloraziora eta hitzordua aldatzeko eskatzen badu edo, hitzordua pasatutakoan, agiri baten bidez frogatzen badu ezin izan duela agertu baloraziora.

9. artikulua. Informazio errekerimenduak

1. Prozeduraren edozein unetan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak informazio eta agiri gehiago eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari espedientea ebazteko. Eskatzaileak 10 egun baliouduneko epealdia edukiko du eskatutakoa aurkezteko jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera.

2. 10 egun baliouduneko epealdian eskatzaileak eskatutako guztia aurkezten ez badu, eskaeran atzera egin duela pentsatuko da eta hura beste izapiderik egin gabe artxibatuko da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak berariazko ebazpena eman ondoren. Nolanahi ere, eskatzaileak beste prozedura bati ekin ahal izango dio.

10. artikulua. Balorazioa ukatzeko arrazoiak

Gizarte bazterketaren balorazioa ukatzeko arrazoiak izango dira:

- a) Foru dekretu honetako 3. artikuluan ezartzen diren betekizunetako bat ez betetzea.
- b) Araudi honetan eskatzen den dokumentazioa ez aurkeztea.

3. atala. Bazterketaren balorazioa.

11. artikulua. bazterketa baloratzeko eta diagnostikatzeko foru zerbitzu espezializatua

Bazterketaren balorazioa Bazterketa Baloratzeko eta Diagnostikatzeko Zerbitzuko teknikari espezializatuek egingo dute; zerbitzu hori Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Gizartegintza Arloko Zuzendariordetza Teknikoari atxikita dago.

12. artikulua. Gizarte bazterketaren diagnostikoa eta balorazioa

1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak espedientea jaso ondoren Bazterketa Baloratzeko eta Diagnostikatzeko Zerbitzuko talde eskudun batek eskatzailearen ustezko gizarte bazterketa diagnostikatu edota baloratuko du uztailearen 16ko 385/2013 Dekretuak onartutako bazterketa baloratzeko tresnaz baliatuz.

2. Bazterketa Baloratzeko eta Diagnostikatzeko Zerbitzuko taldeak pertsona eskatzailearen egoera baloratzeko edota diagnostikatzeko beharrezkotzat jotzen dituen elkarriketak eta gainerako probak egin ahal izango ditu, eta, gainera, horretarako behar diren txostena eskatu ahal izango dizkie beste administrazio publikoei, hirugarren sektoreko entitateei eta beste erakunde batzuei, eskatzaileak baimena emanaz gero.

Eskatzaileak baimena ematen ez badu, berak aurkeztu beharko du eskatzen zaion dokumentazioa.

3. Eskatzailearen egoera baloratzen edota diagnostikatzen saiatu eta hark ez duela nahi adierazten badu eta hori espedientean behar bezala frogatzen bada (nahikoa izango da taldeko edonork sinatutako eginbidea), eskaera atzera egin duela pentsatuko da eta hura artxibatuko da berariazko ebazpena eman ondoren. Hau gertatzen denean, pertsona interesdunak ez beraren legezko edo borondatezko ordezkariak ezin izango dute aurkeztu beste balorazio eskaerarik harik eta sei (6) hilabete pasatu arte eskaeran atzera egitea onartzen duen ebazpenaren jakinarazpenaren biharamunetik.

4. Balorazioa egin ondoren Bazterketa Baloratzeko eta Diagnostikatzeko Zerbitzuak bere irizpen teknikoa emango du; bertan balorazioaren inguruko alderdi guztiak xehatu behar ditu. Irizpen tekniko hori zerbitzua atxikita dagoen arloko zuzendariordetza teknikora bidali behar da.

13. artikulua. Gizarte bazterketaren diagnostikoa eta balorazioa: xehetasunak

1. Adimen gaixotasuna duten pertsonen egoera ez da baloratuko ezegonkortasun klinikoan dauden artean.

Eskatzailearen egoera klinikoa egonkorra dela frogatzeko beraren adimen osasunari buruzko txostena aurkeztu beharko da, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak edo Estatuko Administrazio

Zibileko Funtzionarioen Mutualitateak (MUFACE), Indar Armatuen Gizarte Institutuak (ISFAS) edo Epailtzako Mutualitate Orokorak (MUGEJU) beren onuradunentzat hitzartutako osasun zerbitzuak egina. Txostenaren eredu ofiziala foru dekretu honen II. eranskinean dago. Hala ere, beste agiri mediko, psikologiko eta pedagogiko batzuk eta bestelako agiri osagarriak ere aurkeztu ahal izango dira.

2. Zaballako espetxean (Araba) dauden pertsonen egoera baloratu ahal izango da, baldin eta frogatzen badute Arabako Lurralde Historikoan errotuta daudela eta erregimen irekian daudela, otsailaren 9ko 190/1996 Errege Dekretuak, espetxeen erregelamendua onartzen duenak, 86.4 eta 104.4 artikuluetan ezartzen duena aplikatuz, eta baldintzapeko askatasunean daudenen egoera ere bai, espetxetik irten eta hiru hilabete pasatu ondoren, eskaera aurkeztean Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egonez gero.

14. artikulua. Entzunaldiaren izapidea

Prozedura bideratu ondoren, eta ebazpen proposamena idatzi aurretik, espediente pertsona interesdunaren edo beraren ordezkariaren eskura jarriko da, eta honek hamar eta hamabost egun baliadun bitarteko epealdia edukiko du nahi dituen alegazioak, agiriak eta frogagiriak aurkezteko.

III. KAPITULUA. GIZARTE BAZTERKETA ONARTZEA

15. artikulua. Ebazpena

1. Bazterketa Baloratzeko eta Diagnostikatzeko Zerbitzuaren irizpen teknikoa (eta eskatzailaren alegazioak, egiten baditu) jaso ondoren Gizartegintza Arloko Zuzendariordetza Teknikoak ebazpen proposamena egingo du eta gero Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Kudeaketako Zuzendaritzari aurkeztuko dio, berak baitauka gizarte bazterketen balorazioak ebazteko eskumena.

2. Ebazpenean arrazoiak azaldu behar dira; gainera, bazterketaren baremazioa agertu behar da edo, bestela, egoera nolakoa den adierazi: bazterketa, bazterketa arriskua edo gizarte inklusioa.

Hona gizarte bazterketaren baremazioa:

- Gizarte bazterketa arina: deserrotzea, hastapenekoa edo arina.
- Gizarte bazterketa ertaina: deserrotzea aurreratuta.
- Gizarte bazterketa larria: ez du parte hartzen gizartean.

3. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Kudeaketako Zuzendaritzak eskaera Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen jasotzen denetik hiru (3) hilabete pasatu baino lehen eman eta jakinaraziko du ebazpena; jakinarazpenean ebazpenaren kontra aurkez daitezkeen errekurtsioen berri emango du.

Aurreko paragrafoan ezarritako epealdia zenbatzeko ez da kontuan hartuko espediente eskatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik etenda dagoen denbora.

4. Ebazpena arrazoitu egin behar da eta honako hauei jakinarazi behar zaie: pertsona interesdunari (berari dagokion lehen mailako arretako gizarte zerbitzuaren bidez egin daiteke, interesdunak berak ezarri badu) eta balorazio eskaerari buruzko txostena egin duen lehen edo bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuari (pertsona interesduna ados egonez gero). Ahal dela, jakinarazpena bitarteko elektronikoen bidez egingo da, baldin eta pribatutasunerako eskubidea bermatzen bada (eskubide hori abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, arautzen du 9.1.b artikuluan).

5. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epealdiaren barruan ez bada hura berariaz jakinarazten, gizarte bazterketa onartzeko eskaera administrazio isiltasunez ezetsitatzat joko da; nolahi ere, administrazioak berariazko ebazpena eman beharko du.

Eskaera administrazio isiltasunez ezestearen ondorio bakarra hauxe izango da: pertsona interesdunak bidezko administrazio errekurtsua edo administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izatea.

16. artikulua. Presazko prozedura

Prozedura bigarren mailako arretako gizarte zerbitzu baten bidez hasten denean, balorazio edota diagnostiko espezializatua lehentasunarekin egin ahal izango da kasu honetan: Bazterketa Baloratzeko eta Diagnostikatzeko Zerbitzuaren Aholku BatzordeTeknikoak presazkoa dela ebatziz gero (arrazoiak azaldu behar ditu).

17. artikulua. Ebazpenaren indarraldia eta berrikusteko aukerak

1. Gizarte bazterketaren balorazioaren ebazpena urtebete egongo da indarrean gutxienez. Aldi hori amaitu arte ezin izango da eskatu beste balorazio bat, ezohiko kasuetan izan ezik; kasu bat ezohikotzat jotzeko erabakia Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Bazterketa Baloratzeko eta Diagnostikatzeko Zerbitzuaren Aholku BatzordeTeknikoak hartu behar du, eta ondoren erabakia akta batean agertu behar da.

2. Honako kasu honetan ere gizarte bazterketaren beste balorazio bat eskatu ahal izango da aurrekoa egin denetik urtebete pasatu baino lehen: baloratutako pertsona lehen edo bigarren mailako arretako baliabide batean egonik, erreferentziako profesionalak usten duenean haren egoera erabat aldatu dela berarekin egindako lanari esker. Nolanahi ere, aurrean azaldutako arrazoiak dela eta gizarte bazterketaren beste balorazio bat eskatu nahi bada, ezinbestekoa izango da Bazterketa Baloratzeko eta Diagnostikatzeko Zerbitzuaren Aholku BatzordeTeknikoak horren aldeko erabakia hartzea.

3. Pertsona baten gizarte bazterketaren balorazioaren ebazpena ematen denetik urtebete pasatu baino lehen haren egoera berrikusteko eskaera aurkezten bada, prozedura labur honen bidez ezetsi ahal izango da: Aholku BatzordeTeknikoak hartutako erabakiak helaraziko zaizkio pertsona interesdunari edo beraren ordezkariari, nahi dituen alegazioak, agiriak eta frogak aurkez ditzan; gero ebazpen proposamena idatziko da eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Kudeaketako Zuzendaritzara bidaliko da, bidezko ebazpena eman dezan.

18. artikulua. Eskaeran atzera egitea eta eman ondoren uko egitea

1. Prozeduran zehar, noiznahi, ebazpena eman aurretik, eskatzaileak edo beraren legezko edo borondatezko ordezkariak atzera egin ahal izango dute eskaeran bere borondatearen berri agertzen duen zeinahi bitarteko baliatuz; horretarako nahikoa izango da eskaera atzera egin nahi dela adierazten zaion izapide arduradunak eginbidea sinatzea.

2. Eskaeran atzera eginez gero, eskatzaileak edo beraren legezko edo borondatezko ordezkariak ezin izango dute aurkeztu beste balorazio eskaerarik harik eta sei (6) hilabete pasatu arte eskaeran atzera egitea onartzen duen ebazpenaren jakinarazpenaren biharamunetik.

3. Halaber, ebazpena eman aurretik eskatzailea hiltzen bada, prozedura bertan behera geldituko da, berriaz atzera egiten denean bezala.

4. Eskaeran atzera egitea formalizatutakoan eskaera artxibatuko da eta espedientea amaitutzat joko da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen berriazko ebazpenaren bidez.

5. Prozeduran ebazpena eman bada, eskatzaileak edo beraren legezko ordezkariak uko egin ahal izango diote beren eskubideari beren borondatearen berri agertzen duen zeinahi bitarteko baliatuz; horretarako nahikoa izango da eskubideari uko egin nahi zaiola adierazten zaion izapide arduradunak eginbidea sinatzea.

Eskubideari berriaz uko eginez gero, interesdunak edo beraren legezko edo borondatezko ordezkariak ezin izango dute aurkeztu beste balorazio eskaerarik harik eta sei (6) hilabete pasatu arte eskubideari uko egitea onartzen duen ebazpenaren jakinarazpenaren biharamunetik.

6. Ezohiko kasuetan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Bazterketa Baloratzeko eta Diagnostikatzeko Zerbitzuaren Aholku Batzorde Teknikoak pertsona baten ustezko gizarte bazterketa baloratzeari erabaki ahal izango du eskaeran atzera egin dela edo eskubideari uko egin zaiola jakinarazi denetik sei (6) hilabete pasatu baino lehen (batzordeak berak erabakiko du noiz den kasu bat ezohikoa).

19. artikulua. Errekurtso administratiboak

1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Kudeaketako Zuzendaritzaren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da erakunde horren Administrazio Kontseiluari. Horretarako interesdunak hilabeteko epealdia edukiko du ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Kudeaketako Zuzendaritzaren eta Administrazio Kontseiluaren ebazpen irmoen aurka urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ezartzen duenaren arabera aplikatu daitezkeen gainerako errekurtso guztiak aurkeztu ahal izango dira.

3. Errekurtso administratiboak aurkezteko eta haien izapideak egiteko prozedurak aurreko paragrafoan aipatzen den legean arautzen dira.

20. artikulua. Epailen baten aurrean aurkaratzea

Administrazio bidea agortu ondoren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Kudeaketa Zuzendaritzaren eta Administrazio Kontseiluaren ebazpen irmoen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duen Legeak ezartzen duenarekin bat etorritik; horretarako bi hileko epealdia egongo da administrazio bideari amaiera ematen dion egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

21. artikulua. Arreta plan pertsonalizatua

1. Pertsona baten egoera baloratu edota diagnostikatu ondoren, baldin eta bigarren mailako arretako zerbitzuak edo prestazioak jasotzeko eskubidea badauka, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko erreferentziako profesionalak arreta plan pertsonalizatua (APP) prestatuko du bere irizpide teknikoak aplikatuz eta, ahal bada eta egokia izanez gero, pertsonaren lehentasunak kontuan hartuz. Plan horretan profesionalak zehaztuko du zer baliabide (edo baliabide konbinazio) den egokiena pertsonaren beharrezan asetzeko.

2. Arreta plan pertsonalizatua prestatzeko kontuan hartutako inguruabarretan aldaketa esanguratsuren bat gertatuz gero, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ofizioz berrikusiko du.

Pertsonarekin lan egiten den prozesuan arreta plan pertsonalizatua behar hainbat aldiz berrikusi ahal izango da bertan ezarritako helburuak eta jarduketak pertsonaren beharrezanetara egokitzeko. Nolanahi ere, arreta plan pertsonalizatu bat berrikusten denean, pertsona interesdunak parte hartu behar du.

22. artikulua. Bazterketa Baloratzeko eta Diagnostikatzeko Zerbitzuaren Aholku Batzorde Teknikoa

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Aholku Batzorde Teknikoa eratuko da; foru agindu baten bidez arautuko da eta egiteko hauek edukiko ditu:

a) Gizarte bazterketaren diagnostikoak edo arreta plan pertsonalizatuak direla eta Zerbitzuko profesionalen artean sortzen diren gatazka ebaztea.

b) Gizarte bazterketaren diagnostikoak direla eta bigarren mailako arretako zerbitzuaren eta lehen mailako arretako zerbitzuen artean gertatzen diren desadostasunak aztertzea.

c) Gizarteratzeko egoitza zerbitzuak eta egoitzaz bestelako zentroak erabiltzeko eskaerak baloratzeari, arrisku inguruabarrek gatazka egoerak ekar litezketenean.

d) Gizarteratzeko egoitza zerbitzuak eta egoitzaz bestelako zentroak erabiltzeko eskaerak baloratzea, ezohiko inguruabarrak direla eta zalantzak sortzen direnean pertsonarentzat zer zentro den egokiena erabakitzean.

